

**FITXA: 233 - ÁLAVA - Arabako Lurralde Historikoko kuadrillei eta Trebiñuko enklabeari dirulaguntzak emateko deialdia, 2026an euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eta/edo kanpainak antolatu, garatu eta gauzatzeko.**

**Nori zuzendua:**

Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak, Vitoria -Gasteizko Kuadrilla izan ezik, eta, Trebiñuko enklabeari dagokionez, Trebiñuko Konderriko Udala edo Argantzongo Udala.

**Deialdia:** ALHAO - Arabako Lurralde **Deialdiaren data:** 2026/05/04  
Historikoaren Aldizkari Ofiziala

**Sarbide-esteka:**

<https://egoitza.araba.eus/eu>

**Erreferentziatzko araudia:** 29/2026 Foru Agindua, apirilaren 15ekoa. -  
[https://www.araba.eus/BOTHA/Boletines/2026/050/2026\\_050\\_01165\\_E.pdf](https://www.araba.eus/BOTHA/Boletines/2026/050/2026_050_01165_E.pdf)

**Eragin eremuak:** Euskara

**Zenbatekoa:** 91.000,00 €

**Aurkezteko lehen eguna:** 2026/05/05

**Aurkezteko azken eguna:** 2026/06/01

**Aurrerakina:** Ez da zehaztu.

**Aurrerakinaren gehieneko %a:** Ez da zehaztu

**Gehieneko zenbatekoa:** Ez da zehaztu.

**Gutxieneko zenbatekoa:** Ez da zehaztu.

**Tramitazioa:** Norgehiagoka.

## Laburpena

Deialdiaren xedea da dirulaguntzak ematea, norgehiagoka bidez, xede nagusia izanik euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eta/edo kanpainak antolatzea, garatzea eta gauzatzea 2026an, Arabako Lurralde Historikoko kuadriletan (Vitoria - Gasteizko kuadrila izan ezik) eta Trebiñuko enklabeetan.

## **Diruz lagundu daitezkeen jarduerak**

Diruz lagundu daitezkeen jardueren eta/edo kanpainen helburu espezifiko eta nabarmena izango da pertsonen arteko gizarte interakzioa, euskara komunikazio bidez hartuta, bai eta euskal hiztunak aktibatzea ere.

## **Jarduera-ildoak**

Ez da zehaztu

## **Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak**

Diruz lagundu ahal diren gastutzat joko dira diruz lagundutako jarduera eta/edo kanpainetako zuzeneko gastuak.

## **Gastuetarako aldi hautagarria**

Diruz lagundu ahal izango dira euskararen bidez 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra bitartean egiten diren sozializazio jarduerak eta/edo kanpainak.